



Fikzioaren Izterrak

Ur apalategi

Liburu honekin, hasieran, beste liburu batzuekin bezala gertatu zait, hau da, eleberri bat zela pentsatuz heldu diodala irakurketari, eta bat-batean ohartu naizela ez zela eleberri bat, kontakizun-bilduma bat baizik. Izan ere, argitalpen digitalean behintzat (eta pentsatzen dut paperezko edizioan berdin-berdin gertatuko dela, atzealdeko azalean abisua egon ezik) ez baitago inongo hitzaurrerik edo alde zurretiko oharrik zer genero den ohartarazteko: ipuinak, narrazioak, elaberria...

Hori albo batera utzita, liburua irakurtzen hasi baino lehen, kasualitatez-edo, Esotoporen Alegiak gaztelaniaz eskura nituenez, ireki eta ohartu nintzenerako alegia pila aski polita neukan irakurrita. Egia esateko, alegia zinez atseginak dira, irakurleari helarazten dioten sententzioa bezain atseginak: alaiak, dibertigarriak, pozgarriak...; egun eder horietako bat ateratzen denean bezala: eguzkia, zeru urdinak... udaberriko egun polit bat.

Bueno, bada Fikzioaren Izterrak liburuarekin justu kontrakoa gertatzen da. "Ostixe" pentsatzen duzu, "idazle-mixeriak". Eta berehala aurkitzen zara konfabulazioz, bekaizkeriaz eta deskonfiantzaz betetako "kulebroi" baten erdian, giro patetiko eta tristekiro barregarri baten erdian, non idazkuntza-gremiokoak ditugun protagonista.... Gizontxo/emakumetxo batzuk eginak denak. Beraz, kito udaberriko paisaiak, zeru urdinak eta egun eguzkitsuak! Eta horien ordez, egun berunkarak, grisak, goibelak, lilurarik gabeak... Made in Euskadi. Bale.

Ur Apalategi bere buruaz haratago jotzeko erabat ezgauza da idazle gisa. Idazten duen ia guztiak omen dauka zerikusia idazleen arteko ezinikusekin eta amorruzko edo gorrotozko harremanekin. Oro har, Ur Apalategi beti ateratzen omen da ondo (?) bere konpazio gorrotagarri horietatik –ala, berataz daukan irudi patetikoa hamaika modutara atomizatuta agertzen ote da, bere fikziozko/ez-fikziozko pertsonaien artean barreiatua?-. Antza denez, bere burua ikusten du idazle handi bat balitz bezala, baina zoritxarrez, badirudi norbait/norbaitzuk azpilanetan dabiltzala, hainbeste merezi duen Euskadi Saria eman ez diezaioten. Akaso, Bakearen Nobela ere lapurtu egin diote! Badirudi inguruan dituen idazlerik gehientsuenak kaka bat direla, eta mundu guztia konfabulatzen omen dabilela Ur Apalategi gixajoaren, jenialaren eta sufrituaren aurka, eta horregatik ez diotela ematen Zesarri dagokiona.

Nola erantzuten du orduan Ur Apalategi zorionekoak? Bada, ia inork egiten ez duen moduan erantzuten du: benetako idazleekin erraz identifika daitezkeen pertsonaiak sortzen eta bere gogara manipulatzeko (askotan idazle horien benetako izen-abizenak ezkutuan gordetzeko begirunea ere erakutsi gabe).

Azken batean, Ur Apalategi hori da: manipulazailerik peto bat. Eta, zein da manipulazailerik peto baten helburua? Manipulazailerik, noski. Bai, baina, zein du azken jomuga...? Maltratazailerik. Eta, nola esaten zaio maltratatzeko duenari? Maltratazailerik esaten zaio. Eta

horra hor Ur Apalategik niri eragin didan sentsazio tristea: manipulatzaile eta maltratatzaile iaio eta esperientziadun batena.

Idazleen munduarekin satira bat egin daiteke. Ez dago ezer txarririk horretan. Baina liburuko protagonista bakoitza benetean existitzen den norbaitekin identifikatzea izen-abizen eta guzti... hori etxez etxeko mobbinga praktikatzan duenak baino ez du egiten. Eta mobbinga praktikatzan duena ezin daiteke izan miserable bat baizik. Eta miserableei txanpon berarekin ordaintzea egin daitekeen gutxienekoa da.

Nire ustez, idazle batek horrelako planteamenduak egiten dituenean, garbi uzten duena bere idazle-ezgaitasuna baino ez da. Nor da benetan Ur Apalategi euskal literaturaren barruan? Idazle handi bat da? Ez, darabilen euskarak ez dio hainbesterako ematen. Euskara zuzena darabil, haren baitan modernoki errotua dagoena eta bere unibertso ez-sofistikatuégia adierazteko arazorik gabe balio diona. Baina ez da euskal literaturako “monstruo” bat, hain zuzen. Ez da ez Patziku Perurena ez Angel Lertxundi ez Sarrionandia. Eta Bernardo Atxaga baten jenialtasun tematiko eta prosistikoa ere ez du, ezta horren arrastorik ere. Euskal klasikoen espiritua ere ez dauka (zorionez, bestela Oñatiko monastegian idazten arituko litzateke eta). Baina haren euskarak balio du. Funtzionatzen du. Hizkuntza (gaur egun batez ere) den bezala helarazten dizu. Ez dago gaizki, baina besterik ez. Ez dut uste Ur Apalategiri inork ezer kendu dionik.

Gainera, manipulatzeko oso erraza da. Edonork egin dezake. Beitu:

Arratsaldeko laurak aldean ziren Hur Alapategiren etxeko atea jo nuenean. Atea irekitzen ez zuela-eta haserratzan hasi nintzen, azken finean hark berak deitu zidan egunkarira, literatur elkarrizketa bat exijituz –antza denez, aspaldian ukatua zioten-eta–. Hortaz, berriz jo nuen atea, oraingoan indarrez baina. Eta hura harridura hartu nuena, atea berez zabaldu baitzen. “Ahaztuko zitzaion behar legez ixtea...”, pentsatu nuen. Barrura sartu orduko, erdi ilunpean zegoen gela batean aurkitu nintzen, kandela askotxorekin argizatuta bazegoen ere; eta barrenean, triangelu moduko bat osatuz, aldare bat, Gabonetako argitxoekin apainduta. Hara gerturatu orduko, atzeko hormatik zintzilik hainbat koadro ikusi nituen, denak motibo berbera zutelarik: ile pubikoa. Bai, horixe zen “performance” ziztrin eta zikin horien motibo nagusia (enmarkatzeko molestia eta guzti zeukan hartuta). Esperma-zipriztinak izan zitezkeenak ere han-hemen azaltzen ziren, baina batez ere, euskal idazle batzuen liburuetan –guztiak ziren liburu ezagunak–. Gabonetako argitxoekin apainduriko aldarean, su motelean, euskal literatura garaikidean sona handia zuten zenbait libururuen azalak ari ziren egosten, sorgin-lapiko batean bezala, borborka, poliki eta euren kasa. Alboan, orratza askorekin zeharkatutako iruditxo batzuk ageri ziren, euskal idazle arrakastatsu askoren argazkiak aurpegi gisa zeuzkatenak. Hur Alapategiren arrastorik ez ordea. Bueno, haragi-hezurrean ez behintzat. Baina bai zentzu irudikatu batean, Buda jainkoa irudikatzen zuen estatuatxo batean haren aurpegia miresgarriro zizelkatuta ikusi bainuen, betaurreko eta guzti. Berehala, gela osoa, Hur Alapategiren aurpegia zerakutsaten estatuatxo horietaz josita zegoela ohartu nintzen. Bazter batean, 3D inprimagailu bat ikusi nuen; hortaz, segituan ulertu nuen Buda Alapategiren estatuatxoak nondik atereak ziren. Nazkaturik, eskura nituen argi-etengailu guztiak sakatu, pertsianak igo eta gelako hiru lehioak ireki nituen erdiz erdi. Han zegoen kiratsak zonbi bat uxatuko zukeen eta. Une hartan, zaratatxo bat entzun uste izan nuen, armairu batetik bide zetorrena... Hara jo, belarria armairuko atean jarri, eta barruan benetan norbait zegoela egiaztatu ondoren, atea bat-batean ireki nuen, atzera jauztearekin batera. Hur Alapategi pirritan erori zen, armairutik zolura. Kaliforniako Gay tankerako jantzi bat zeraman soinean –latex beltzak dirtdai zegoen–, eta haren ipurtzuloan “Vavieca” deritzon kontsolagailu/zartailu horietako

bat, barru-barruraino sartuta. Haren ondoan, baina armairu barruan orandik, kristoren gizaseme beltz bat zegoen. Ez nuen itxaron nahi izan ezer gehiago ikusteko. Ate alderantz egin nuen korrika, kalera ahalik eta lasterren irten nahirik. Entzun nion esaten zidala: "Itxoin, gure elkarrizketa... Gauza interesgarri asko zeuzkat kontatzeko! Onena nauk, frogatu ahal diat...! Itxoin!" Orduan, haren beltzak orro bat bota zuen: "Zergatik atera haiz armaiturik?", entzun nion esaten ziola, erabat suminduta. "Sartu barrura, alu hori, hau duk-eta hire lekua! Ahaztu al duk nor haizen eta nor den hire jabea ala?". Eta jarraian, zartailu baten zartada gogorrak. Ez nuen besterik entzun nahi izan. Banuen nahikoa. Egunkariko erredakziora iritsi eta nire dimisioa aurkeztu nion zuzendariari. Orduz geroztik, parke publikoetan usoei ogi-apurrak jaten ematea beste zereginik ez dut, zertarako...? Purra-purra...

Ikusten duzue zeinen erraza den besteak barregarri uztea? Horrelako testu bat argitaratzea erabat zilegi da, bai, hori egiteko eskubide osoa daukagu denok, baina baldin eta benetako norbaitekin erraz identifikatzeko moduko izen-abizenik erabiltzen ez badugu. Bestela, makarra baten gisa jokatzeko izango bailitzateke.

Dena den, hemen ere esan beharra dago mobbing egitea osoa zaila dela ikuslerik ez dagoenean edo, bestelako hitzekin esanda, mobbinga praktikatzen dutenei saltsa lodituko dien inor fartsan parte hartzeko prest azaltzen ez denean. Eta alde horretatik, euskal giroko irakurle anonimo eta zuhurrek ere jakin egin beharko lukete fartsa honen guztiaren erdian beraiek betetzen duten lekua zein den. Eta fartsa horretan noraino inplikatzeko diren, edo, hitz lauez esatearren, makarren jipoietan anonimoki eta ezkutuki parte hartzea deliberatu ote duten... Behintzat, Ur Apalategik bere izen-abizenak jartzen ditu, eta "meritu" hori onartu egin behar zaio (espero dezagun haren meritu bakarra ez izatea!).

Ur Apalategi idazle hobea izango litzateke besteei hainbeste begiratzeari utziko balio eta bere buruan arreata handixeago jarriko balu. Eta horrela, besteei zerbait izateko aukera emanez, zerbait izateko aukera emango lioke bere buruari, agian. Egia esanda, bere buruaz oso harro dabil. Eta ez da hainbesterako. Tropeleko bat gehiago da. Eta kito. Gutxi al da?

Batzuk bizitzan zehar ibiltzen dira polemista trebarena egiten. Eta kosta ahala kosta saiatzen dira polemizatzen, eurak eta besteak leher egin arte. Zergatik jokatzeko dute horrela? Ez dakit ba, akaso gustua hartu diotelako besteei begira egoteari... edo nesken bilo publikoak garaikur gisa erakusteari. Baina besteren izenak fikziozko kontakizunetan erabiltzea, izen-abizen horiek objektu publiko bihurtzea eta gero piltzarrak edo teleñekoak izango balira bezala erabiltzea, hori sasikumeek bakarrik egiten dute.

Edo baliteke batzuek horrela jokatzeko ondo irabazitako ospea eskuratzeko erabat ezgauza direlako, eta euren merituz, eurek idatzitakoagatik, euren obragatik, gizartearen onspena irabazteko zeharo inutilak direlako. Erretxindu batzuk alegia. Medriokre batzuk (baina mediokre bikoitzak: idazle bezala eta gizaki bezala –bigarrena... hori bai porrota, hori-!).

Dena den, argi gera bedi: Ur Apalategi oso idazle txukuna da: ergatibo guztiak zein bere tokian zeinen txukun jartzen dituen ikusi besterik ez da egin behar!

Txantxak albo batera utziz eta liburuari berriro helduz, esan behar da une batez pentsatzera heldu naizela Ur Apalategik ez ote duen itxaroten gaixorik egon arte eta berrogei graduko sukarra izan arte idazteari ekin baino lehen. Batzuek zahatoari heltzen diote; beste batzuek porruei edo kokainari... Agian, berak gripea harrapatu arte itxoiten du...

Ur Apalategiren euskara modernoa, zorrotza eta zehatza da. Hark idatzi esaldi bakoitza ondo taxututa dago. Ikusten da gustatzen zaiola atze-aurre guztiak ondo batzea. Perfekzionista dela ere esango nuke, baina Patxi Zubizarreta baten preziozismora inondik ere iritsi gabe (hainbeste euskara ez dauka, hain jeniala ez da). Hizkuntza aldetik indarra eta ziurtasuna helarazten ditu. Baina edukien aldetik –kontzeptualki– pobre samarra dela esango nuke, idazten dituen gauzak *erraz* irakurtzen bazaizkio ere, hasi eta buka.

Ñabardura bat: Ur Apalategik tentsio handia txertatzen du beti bere sortze-lanetan, eta tentsio hori batez ere pertsonaien artean sortzen diren kontraesanetan eta kalapitetan jartzen da agerian; berezko ezinikusiak dira (?), berez-edo sortuak (kasurik hoberenetan), baina oinarri benetan zirtzila dutenak, beti. Hori bai... giza zirtzilkeria unibertsal batez ari gara ote...?

Narrazioetako protagonistak ditugun gizon-emakumeen artean, pertsonaien artean alegia, sortzen diren harremanak –zergatik ez?– interesgarriak dira. Ur Apalategiren literaturaren alma materra den tentsioaren jomuga ziur aski hori da, horra jotzen du senez-edo, eta baliteke egilearen liburu guztiak –bai orain arte idatzitakoak bai geroan idatziko dituenak– parametro horien arabera sortzea beti. Arte plastikoetan –esaterako, pinturan– esan dudana oso erraz jartzen da agerian: Van Gogh, Toulouse-Lautrec, Miró, Magritte... bakoitzak bere estilo kontzeptuala dauka, bere “gaia” du, bere obsesioa eta bere irudikapen grafiko propioak ditu, eta horien bidez nabarmendu eta gailendu egiten dira... Literaturarekin gauza bera gertatzen da, eta batez ere, literatura *onarekin*. Hau da, egile batek bere gaia, bere estiloa, bere obsesioa eta bere irudikapen kontzeptual eta formalak ditu. Ur Apalategiren *leitmotiva* badirudi hori dela: gizakien arteko harreman biziak. Eta gizakiaren alderdirik zirtzilenetan, nahasgarrietan eta kontrolagaitzetan aztarrika arituz sorrarazten duen estetika horrekin hainbatetan bete-betean jotzen duela onartu egin behar zaio.